

**EITBk berreskuratu
egin behar ditu
bere sorrera inspiratu zuten
berdintasun eta
aniztasun printzipioak**

2015/09/30

EITBk berreskuratu egin behar ditu bere sorrera inspiratu zuten berdintasun eta aniztasun printzipioak

[KOMUNIKAZIO EREDU DEMOKRATIKO BATEN ALDE]

Komunikabideek funtsezko eginkizuna dute gizarte demokratikoetan. Informazioa hautatzen dute, eta garrantzia ematen diote haren zati handi bati; gertakarien berri eman edo ezkutatu egiten dituzte, eta zenbait aldarrikapen sozial eta posizio ideologikori oihartzuna ematen diete, ala indargabetu... Beraz, hedabide publiko eta pribatuek zeharo baldintzatzen dute gizartean gertatzen denari, erakundeek egiten dutenari eta botere publikoen jokabideari buruzko ikuskera.

Hori dela eta, demokrazian ezinbesteko jotzen da komunikabide publikoak sortzea. Hauek eginkizun berezia dute oinarrizko bi printzipio bermatzerakoan, berdintasuna eta aniztasuna. Hedabide publikoak herritarrentzako funtsezko zerbitzuak dira, herritarren informaziorako eta parte hartze politikorako behar-beharrezko bitartekoa diren heinean, hots, komunikabide pribatuek sekula bermatuko ez dituzten printzipioak.

Eusko Legebiltzarrak 1982an legez arautu zuen Euskal Irrati Telebista (EITB) Erakunde Publikoaren sorrera, Autonomia Estatutuaren 19. artikuluan esaten zena aintzat hartuz, EAEko herritarren eskubide eta askatasunak behar bezala gauzatzeko oinarri gisa.

Legeak berak dioenez, EITBren jarduera komunikatiboaren printzipio izan behar dira *“gauzak direneantxe ikustea, egiatasuna eta alderdikeriarik eza”*. Esaten du beharrezkoa dela *“berriemanketa eta iritziaren arteko zehazketa eta bereizketa”*, baita iritziak *“adierazten dutenak nor diren”* identifikatzea ere. Halaber, legeak dio aintzat hartu behar dela berdintasun printzipioa eta politika-, erlijio-, gizarte-, kultur- eta hizkuntz-aniztasunarekiko begirunea, besteak beste.

ELA bat dator printzipio hauek guztiokin, nazio aske eta demokratiko baten eraikuntzan engaiatuta dagoen klase-sindikatu den aldetik. Demokraziarekiko gure konpromisoa erabatekoa da, izan ere, langile-klaseak beharrezkoa baitu bere interes eta helburuak sustatzeko sistema politiko bat non zorrotz errespetatuko diren oinarrizko eskubide eta askatasunak (greba-eskubidea, iritzi- eta informazio-askatasuna...).

ELAren iritziz, gizarte-erakundeei dagokie –beste batzuren artean– behatzea eta juzkatzea –salaketa beharrezkoa bada, salatzea– komunikabide publikoak beren eginkizuna, herritar guztiei zor zaien informazio-eskubidea, bermatzen ari ote diren.

Hortaz, komunikabide publikoek ardura demokratiko oso handia dute, herritarren zentzu kritikoa garatzea eta interes orokorreko gaietan haien parte hartzea sustatzea. Horretarako ziurtatu behar dute kokatzen diren gizartean lehiatzen diren ideia eta programen aniztasunak beren programazioan leku egokia izan dezan; esan dugu arestian hedabide pribatuek hau ez dutela egingo.

Bestalde, helburu hauek egingarri izan daitezen, komunikabide publikoetako profesional

eta langileek babes berezia behar dute, beren lana egiterakoan enpresan bertan jasan ditzaketan presioetatik babesteko.

Azkenik, langileek legez edo negoziazio kolektiboan ezarritako eskubide laboral osoak dituzte. Enpresak baliabide nahikoak eman behar dizkie lanbidea eta ikerketa behar bezala egiteko moduan izan daitezzen. Halaber, garapen profesionalerako eta gaitasun teknikoa izateko eskubidea zor zaie, promoziorako eta beren lana behar bezala egiteko.

[AGIRIAREN XEDEA]

ELA gizarte-eragile oso garrantzitsua da; horregatik, euskal gizartean informazio *sortzaile* da, baina baita erakunde publikoaren kateetan egunero informazio eta iritzien *objektu* ere. Bestalde, EITB taldean ehundaka pertsonak dihardu lanean, eta sindikatuari badagokio ere profesional hauek beren lana zein baldintzatan egiten ari diren aztertzea.

Erakunde publikoa sortu zenetik 33 urte igaro dira. ELAk deritzo une egokia dela erakundearen praktika informatiboaz eta politika laboralez balorazio bat egiten saiatzeko.

Lehenik, sindikatuak aitortu behar du hainbat langilek egindako lana, tinkatu baitute erakundea, zeina oinarrizkoa izan baita gure autogobernua eta herri garen aldetik aurrera egiteko. Lan hori ez da beti behar bezala aintzat hartu izan, eta ELAk aitortza horretan dagokion zorraren zatia kitatu nahi du.

Bestalde, aipatu beharrekoak dira ere urteotan komunikazio-talde publikoaren garapenak izan dituen oztopoak; hauetako asko ezin zaizkie bere arduradunei egotzi.

Haatik, ELAk bere kezka adierazi behar du erakunde publikoaren zuzendaritzak gaur daraman kudeaketa dela eta, batik bat politika informatiboari eta euskal irratitelebista publikoan diharduten profesionalen enplegu-baldintzei dagokienez.

Hau da proposatzen dugun gogoetaren xedea. Gogoeta honen helburua kontrastea eta erreakzioa izatea da, ziur baikaude posible izan behar dela erakundearen sorreran ipar gisa erabaki ziren berdintasun, aniztasun eta justizia printzipioak berreskuratzea.

[EITBko ZUZENDARITZAREKIKO BILERA]

ELAko Batzorde Eragileko hainbat kide, idazkari nagusia buru zutela, 2014ko apirilaren 8an Maite Iturbe zuzendari nagusiarekin eta erakundeko beste bi arduradunekin bildu ziren. ELAk eskatu zuen hitzordu hau EITBren Bilboko egoitzan izan zen.

Bilera hartan zuzendaritzari funtsean orriotan aletuko ditugun gaiak adierazi genizkion. Hamazazpi hilabete geroago, zoritxarrez, salatutako gaietan egoera ez da hobetu.

Orduan salatu genuen, eta horretan gaude oraindik, EITBko informazioan leku murrizta dutela erreferentzia alternatiboek eta politika laboral zein sozialak aldatzeko aldarrikatzen duten mobilizazio sozialek; kontrara, gobernuaren edo enpresa-munduaren posizioek

berebiziko oihartzuna izan ohi dute. Bestalde, giza-baliabideetan doikuntza eta murrizketak egitea erabaki da (Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-politikarekin bat datorren politika), eta horrek enplegua suntsitzen du. Gainera, negoziazio kolektiborako eskubidea urratzen ari dira.

Bilera hartan nabarmendu genuen kezkatuta geundela EITBn ez dagoelako organo bat zeinak inpartzialtasunez aztertuko dituen edozein erakunde edo ikuslek tratamendu informatiboaz egin ditzaken salaketak. Halako organo batek adierazpen eta informazio askatasuna, aniztasuna, neutraltasuna eta zintzotasun informatiboa defendituko luke. Honen moduko salaketa publikoez gainera, gaur ia beste aukerarik ez dago, zuzendaritzari egindako protestak (hauek, esan dugun legez, ez dute eraginik izan) edota Administrazio Kontseiluarengana jotzea salbu; haatik, azken hau ere, bere osaeraren ondorioz –Eusko Legebiltzarrean erabakitzen diren alderdi-kuotak medio– ez da inpartziala.

Ez dugu salatzen Legebiltzarrak kontrol publikoa egiteko eskubidea izatea; aitzitik, hori ezinbestekoa da demokrazian. Beste kontu bat nabarmendu nahi dugu: ez dago mekanismo eragingarririk politika informatiboa kontrolatzeko gobernuen joera –zori-txarrez gauza naturala bailitzan onartzen dena– mugatzeko eta, horrenbestez, galarazi egiten da informazio pluralagoa emateko aukera, zeina gure herriaren isla egokiagoa izango litzatekeen. Zoritxarrez, zuzendaritzak egin duen hautu honen ondorioz pairatzen ditugun politiken alternatibak ezkutatu egiten dira.

[POLITIKA INFORMATIBOARI BURUZKO GURE IKUSMOLDEA]

ELAk hau adierazi nahi du politika informatiboari buruz:

1. Eduki informatiboetan gobernu-jarduerari gehiegizko lekua ematen zaio, eta beste errealitate politiko eta sozialei, berriz, oso urria. Pobrezia bere testuingurutik at agertzen da, eta saihestu egiten da harekiko euskal erakundeek, guztien gaineratik Jaurlaritzak, ezartzen dituzten doikuntza eta murrizte-politikek duten ardura. Politika horientzako alternatibak badaudela ez da behar bezala agertzen, ezta hauek aldeztu ditugunok ere. Hori, gehiengoaren babes soziala izan arren, erakundeen militanteei edota norbere legitimazio-esparruan lortutako ordezkari mailari dagokionez, gure kasuan, soldatapeko biztanlerian.

Gizarteak asko galtzen du behartutako informazio gabezia horrekin. Aipatu dugu goian komunikabide publikoen izateko arrazoi nagusia hain zuzen gizarte pluralaren berri ematea dela, komunikaziorako aukera ematea hedabide pribatuek beren interesen ondorioz baztertzen dituzten sektoreei.

2. ELAk ohartarazi nahi du, gainera, elkarrizketa eta antzeko saioetan zenbateko tartea eskaintzen zaien erakunde ezberdinei. Gure salaketaren azalpen moduan adibide bat ekarri dugu, erreferentziazko saioa den Radio Euskadiko *El Boulevard* saioan egindako elkarrizketak (*ikus koadroa*). Koadro honetan (zeina EITBko zuzendaritzak emandako datuekin osatu den) ikus daiteke eragileei emandako denborak ez daukala inolako proportziorik bakoitzaren ordezkariak mailarekin. Alde batetik, gobernuko eta bera sostengatzen duen alderdiko ordezkariak, eta enpresa munduko arduradunak sarri aieratzen dira; bestetik, austeritate-politikak aldatu beharra aldarrikatzen dugunok agertzea anekdota hutsa da. Ez dugu esango deitzen ez gaituztenik, baina agerraldi guztien artean mundu alternatiboari emandako lekua testimoniala da. Desoreka are handiagoa da eragile jakin batzuren adierazpenak eguneko beste saio informatiboetan ausaz errepikatzen baitira.

Radio Euskadiko Boulevard irratsaioaren elkarrizketen laburpena 2014

Alderdi Politikoak

Ezker Anitza	1
IU	2
Geroa Bai	3
UpyD	3
PSE-PSOE	16
PP	17
EH Bildu	19
PNV	19
DENERA	80

Eusko Jaurlaritzaren Sailburuak eta Lehendakaria

Lehendakari	2
Uriarte	1
Tapia	2
Oregi	2
B. Heredia	2
Erkoreka	3
Darpón	3
Aburto	4
DENERA	19

Eusko Jaurlaritzako beste Karguak

Zearreta (F.Pública)	1
Arévalo (FP)	2
Alustiza (Lanbide)	2
DENERA	5

Enpresa mundua

Patronalak	7
Enpresa munduko beste batzuk	8
DENERA	15

Foru Aldundiak

Araba	2
Bizkaia	4
Gipuzkoa	4
DENERA	10

Alkateak

Gasteiz	1
Iruña	1
Donostia	1
Bilbao	2
DENERA	5

Sindikatuak

ELA	3
CCOO	3
LAB	2
UGT	1
DENERA	9

3. Jaurlaritzaren politikek eragindako sektoreek deitzen dituzten mobilizazio, greba-egun eta antzekoak sarri oihartzun txikia izaten dute, eta deigarria da halako kasuetan gobernukideei zenbat denbora ematen zaien bere posizioak azaltzeko.
4. Kate pribatuen arrastotik, tertuliek hartu dute gehienbat benetako eztabaiden lekua; hauek gizarte demokratiko batean ezinbestekoak dira. Tertulietan, ordea, propio gonbidatzen dituzten pertsona asko eta askoren meritu bakarra nola erabakitzen den ez dakigun alderdi-kuota bat ordezkatzeko da.
5. Gainera, salatu beharrekoa da iritzia moldatzeko beste modu bat, ez hain agerikoa, baina hau ere sistematikoa: Aktualitateko gaien inguruan iritzia ematen duten ustezko "adituak". EITBren zerrendan hauetako askoren iritzia patronal eta gobernuaren tankerakoa da. ELGE, BBVA, Fedea eta antzeko erakundeen txostenak aipatu ohi dira, baina beste politika batzuk defenditzen dituzten erakundeen txostenak -ugariak eta anitzak- ez dute antzeko tokirik izaten.
6. Sindikatu honek zuzendaritzari bere kexua helarazi dio kontu hauen guztien inguruan. Azaldu nahi izan diogu informazioa emateko modu horrek azkenean estigmatizatu egiten dituela politika bakarria dagoela dioen printzipioa onartzen ez duten organizazioak. Sindikalismoari erasaten zaio, batik bat Eusko Jaurlaritzaren politiken aurkako jarrera dugun sindikatuoi.
7. Zuzendaritzari egiten diogun kritikak ez du esan nahi PP, PSE-EE eta UPyDren posizioak babesten ditugunik; hori arinkeria litzateke. Izan ere, gure ustez indar politiko horien kuota EITBn aintzat hartzen baita. Hain kaskarra izan zen PSEren EITBko zuzendaritza aldiak agerian utzi zuen erakundearen egungo ereduak zenbateraino ahalbidetzen duen hedabide publiko baten erabilera politiko eta alderdikoaia.

[PERTSONAL POLITIKARI BURUZKO KRITIKA]

Esan dugun legez, komunikabideen politika informatiboa guztiz lotuta dago berrietan dagoen enpleguarekin eta lan-baldintzekin. Hauek nolakoak diren, hobeto edo okerrago bermatuko da erakundearen eta bere langileen profesionaltasuna eta eskaini beharreko zerbitzu publikoaren kalitatea.

1. ELAk nabarmentzen du EITBko pertsonal politika negargarria dela: enplegua suntsitu eta negoziazio kolektiboa sistemaz ukatzen du. Erakunde Publikoa sortzeko Legearen 47.2 artikulua dioen arren "*Herri-Erakunderako eta bere baltzuetarako langileen hautaketa deialdi publikoaren bidez eta merezimendu eta gaitasunaren printzipioetan*" oinarrituta egingo dela, errealitatea oso bestelakoa da. Irregularitasuna, inprobisazioa eta klientelismoa ohikoak izan dira, eta dira. Izendapen libreko kontratuak, kontratu merkantilak, artista-kontratuak eta kontratu laboralak izan dira EITBko beharrian estrukturalak betetzeko erabili diren formula irregularrak. Egoera honen ondorioetako bat izan da lege-iruzurrezko kontratu

merkantilak erregularizatzeko Gizarte Segurantzari 4 milioitik gora euro ordaindu beharra. Legez kanpo egindako kontratu laboralen ondorioz izandako bidegabeko kaleratzeen kalteordainak ere ohikoak izan dira. Esaterako, 2014an EITB taldeak ordaindutako kalteordainak guztira 210.000 eurotik gora izan ziren.

2. ELAren posizioa da Administrazioako lanpostuetara sartzeko printzipioak berdintasuna, meritua eta gaitasuna izan behar direla. Onartu ezinekoa iruditzen zaigu hainbat zuzendaritzak egin dutena, planifikatu ez izana edota plantilla estrukturala ez zabaldu eta finkatzeko propio hartutako erabakia. Horrek hainbat kontratazio irregular egitea ekarri du, eta finean lanpostuak suntsitzea, gero zuzendaritzak eragindako egoeraren errudunak langileak direla esanez.

3. Izendapen librea erabili izan da zuzendaritza edota antolakuntza lanak egin behar zituzten arduradunak hatzamarrez hautatzeko. Kasu askotan kontratu hauek erakundea sortzeko legeak ezarritako prozedurak saihesten dituzte, ez baita deialdi publikoaren eskakizuna aintzat hartzen. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak behin eta berriz salatu izan du hau. Unean-uneke gobernuek bide hau erabili dute jendea enpresako funtzio estrukturaletan sartzeko, edota hainbat arloburu jartzeko.

4. Azpikontratazioari dagokionez EITBko pertsonal politikaren ajea betidanik izan da inprobisazioa eta klientelismoa; batzutan noraezean ibili dira, kudeaketa okerrak eragindako arazoak bideratu ezinik. Bada, orain zuzendaritzak iraganeko inprobisazio hori "konpondu" nahi du aurrekontuetako murrizketak betetzearren (2009ko 190 milioi eurotik 2014ko 121 milioira), enplegu asko suntsitu delarik. Gobernuak esanagatik enpleguaz kezkatuta dagoela, bere politikak lanpostuak deuseztatzen ditu. 2010etik 2014 amaiera bitartean 173 enplegu galdu dira, plantillaren %15, eta Administrazio Kontseiluak erabaki duen amortizazioaren ondorioz guztira 200 lanpostutik gora izango dira galdutakoak. Hau ezin da inola ere onartu.

Enplegua suntsitzeaz gainera, azken urteetan negoziazio kolektiboa blokeatuta dago eta lan-baldintzak galdu dira. 2010eko %5eko soldata-murrizketaz eta 2012ko abenduko aparteko ordainsariaz gainera, soldatak izoztuta izan dira 2011, 2012, 2013, 2014 eta 2015 urteetan.

5. Hain zuzen, ELAk gogora ekarri nahi du Eusko Irratiko enplegu deialdi publikoa (EDP) ez zela ordezkari sindikalekin adostu. Erabakia Administrazio Kontseiluak hartu zuen, besteak beste EAJren, EH Bilduren eta LABen aldeko botoarekin. Ez dakigu LABek zergatik eman ote zion hain garrantzi gutxi enpleguari. Zuzendaritzaren proposamena babestu zuten guztiek bazekiten EDP horren ondorioa 30 lanpostu gutxitzea izango zela, eta mugagabeko lanpostu bat finkatu nahi zutenentzat aukerak txikiagoak izango zirela. Behin erabakita lankide batzuk kalera doazela, gutxienekoa da zuzendaritzak horretarako zein prozedura hautatzen duen, EEE kolektiboa ala banakako kaleratzeak. Formula bietako edozein, zuzendaritzak borondaterik balu, kaleratuentzako baldintza berdinekin aplikatu daiteke. Debate hau faltsua izan da, eta bere asmoa zen sakoneko auzia ezkutatzea, enplegua suntsituko zela alegia. Behin betiko kontua, eragozten saiatzen ari garena, EITBn lanpostu bat ere ez galtzea da.

EAEko Goi-Auzitegiak epai batean 30 lanpostu kentzeko Administrazio Kontseiluaren erabakia ontzat eman izana aurrekari larria da; Rajoyren erreforma laborala Jaurlaritzaren alde aplikatu dute, eta arlo publikoan kaleratze kolektiboak egiteko bidea irekitzen da horrela. Horrenbestez, estaldura juridikoa ematen zaio Urkulluren gobernari murrizketak egin eta enplegua suntsitzeko bere estrategian. Gure sindikatuak dagoeneko iragarri du Auzitegi Gorenean epai honen aurkako kasazio-helegitea sartuko duela.

6. Salatu beharra dago zuzendaritzak bere langileen euskalduntzeari ez diola bultzada handirik eman. Gure iritziz, ezin dira kontrajarri euskararen aldeko jarrera – komunikazio eremuko euskal Erakunde Publiko baten ikurra– eta enpleguaren defentsa.

7. Plantillaren mobilizazioek agenda aldatzera behartu dituzte Eusko Irratiko EDPari buruz Administrazio Kontseiluak hartu zuen akordioaren protagonista guztiak. Horren adibide, Legebiltzarrean otsailaren 5ean izan zen osoko bilkura, zeinetan erakundeko zuzendaritzari galdegin zitzaion EEEda bertan behera utz zezala. Orduan hartutako erabakiak lotesleak ez diren arren (gauza bitxia, gobernu demokratiko bati dagokionez), begibistakoa da Jaurlaritzarentzat porrota izan zela; esaten duen bezala benetan negoziatzeko borondatea balu, hartutako erabakiak berrikusi egin beharko lituzke.

8. Oso larria da, areago Eusko Irratiko langileen gehiengoak otsailaren 24ko grebari eman zioten babesia ikusirik, Administrazio Kontseiluak Eusko Irratiko Zentroarteko Komitearen bi eskariak ukatu izana. Zehazki, Eusko Irratiko Zentroarteko Komiteak Kontseiluko kideei eskatu zien EITBko Zuzendaritzari eska ziezaiola iragarritako EEEda erretiratzea, eta langileen ordezkariekin akordio bat iristea erakunde publikoko 30 lanpostuen amortizazioa ekiditeko. ELAren ustez Administrazio Kontseiluak otsailaren 24an hartu zuen erabakia, “EITB Taldeko sozietateen plantilla estrukturala aztertu eta negoziatzea”, kea besterik ez da.

9. ELAk exijitzen du negoziazioa ordezkari sindikalekin egin dadila, hau da, ordezkaritza sindikala ez dadila desitxuratu alderdien ordezkapen foroetan. Halaber, sindikatu honek Administrazio Kontseiluari exijitu zion 2014ko apirilaren 29an hartutako erabakia bertan behera gera dadin behartu dezala.

10. ELAk salatu egin ditu EITBko plantilla murrizteko berregituratze planak, eta bere kezka eta arbuioa adierazi du. Zuzendaritzak iragarri duena, telebistako plantilla %20 murrizteko asmoa, Eusko Irratiko EEEdaren antzeko beste urrats bat litzateke. Bere apustua gero eta esternalizazio gehiago izatea da; honek zuzenean eragingo dio enplegu kopuru eta kalitateari, baina baita komunikabidearen kalitate informatiboari ere.

[GURE PROPOSAMENA]

ELA ez dago txosten honetan deskribatutako errealitatea onartzeko prest. Datuen inflazioa, ez kalitatezko informazioa, nagusi den gizartean, non albisteak berehala zaharkituta geratzen diren, Erakunde Publiko batek gutxieneko kalitatea duen eragin publikoko zerbitzuak informazio egiazko, egiaztatu, unean egokia eta testuinguruan kokatua eskaini beharko luke, independentzia profesional eta aniztasunaren printzipioak aintzat hartuz, eta eztabaida demokratikoa zein iritzien adierazpen askea ahalbidetuko beharko luke. Hau guztia, herritarrek errealitatearen ikuspegi zabal eta zorrotza izan eta, hartara, beren iritzia osatu ahal dezaten.

Gure ustez EITBn badira kalitatezko produktuak egiteko baldintzak eta pertsonal kualifikatua, eta merkatu-kuota lortzeko lehiak ezin du komunikabide publikoa eraman kate pribatu askok eskaintzen duten eredu hutsala imitatzerara. Ematen diren edukiak banalizatzeko arrazoirik ez dago.

Sistemak inposatzen dituen desoreka sozialak borrokatzeko beste modu bat da hedabide publikoek errealitatea islatzea, hau gobernuak baldintzatzen duen agenda mediatikoa baino askoz zabalagoa delarik.

Gure gizartean injustizia eta gatazka dira nagusi. Halere, EITBren politika informatiboaren ardatz nagusiak hazkunde ekonomikoa nabarmentzen du, esaterako, baina ez du azaltzen zergatik ari den era berean desberdintasuna zeharo areagotzen. Desberdintasun hau ez da Erakunde Publikoaren programazioan nahikoa agertzen, eta bera aipatzen denean testuingurutik kanpo izan ohi da, gobernuak aplikatzen dituzten politikek inongo zerikusirik ez bailuten.

Horregatik, ELAk honakoa proposatzen du:

1. Erakunde publikoak hausnar dezala bere politika informatiboaz eta ziurta dezala inpartzialtasuna eta informazioa izateko aukera, iritzi eta posizio alternatiboei presentzia orekatua emanaz. Hain zuzen, garrantzia eman behar zaie errealitate sozial eta laboralari buruzko informazioei, eta aplikatzen diren politikek eragindako ondorio anitzen inguruko albisteei ere, hauek guztiak ezkutatu egiten baitira, edo desorekatuta agertu.
2. Organo bat eratzea, batetik parte hartze soziala ahalbidetzeko eta, bestetik, Erakundearen politika informatiboaren gaineko kontrola gauzatzeko. Organo honek herritarren eta organizazioen ekarpen eta salaketa publikoak sustatu eta kudeatu beharko lituzke, baita informazio objektiboagoa bermatzeko mekanismoak eskaini ere. Halaber, kontrol handiagoa ahalbidetu beharko luke, botere politikoak EITB bere jabego gisa erabil ez dezan.
3. ELAk galdegiten du erakundearen sorrera bultzatu zuten printzipioei bultzada handiagoa ematea; euskal kulturaren eta euskararen sustapena bere politika informatiboaren ardatz nagusi izan behar du.
4. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan partida bat finkatu behar da kalitatezko euskal irrati-telebista publiko bat bermatzeko.

5. Enpleguari dagokionez, kontratazioa egiteko Erakundearen sorrerako 5/82 legean ezarritako irizpideak jarraitu behar dira. Administrazio Kontseiluaren erabakia bertan behera utzi eta ordezkari sindikalekin hitzartutako EDP bat deitu behar da Eusko Irratian, bermatuaz inola ere ez dela enplegurik suntsituko.

Erakundeko giza-baliabideak eta baliabide teknikoak beren osotasunean erabiliko direla bermatu behar da, esternalizazioari lehenetsiz. Kanpoko bitartekoak beharrezkoak direnean, lan-baldintzak taldeak zuzenean kontratatutako beharginek dituztenekin parekatzea.

Negoiazio kolektiboa berreskuratzea aldarrikatzen dugu, eta azken urteetan kendutako lan-baldintzak berriro ezartzeko konpromisoa.

6. ELArentzat deitoratzekoa da Administrazio Kontseiluko kideentzat kezka handiagoa izatea bakoitzaren pantaila-kuota zein den, eta ez hainbeste gizartearekin eta berau egituratzen duten erakundeekin hedabide publikoa hobetzeko debatea. Agian helburu honegatik Legebiltzarrak lau legealdiz baztertu egin du sindikatu nagusia Kontseiluko ordezkari-tza sindikaleko postutik. Paradoxa bada ere, EAeko sindikatu izanagatik, ELA ez da Legebiltzarreko talde politikoen kinielan agertzen. Horregatik, sindikatu honek eskatzen du finka dadila erakundeen ordezkari-tza mailarekin bat datorren presentzia, baita Administrazio Kontseiluan ere.